

Berrikuntzak duen garrantzia gizartearen onurarako

EUSKALDUNA JAUREGIA - BILBO
2004ko AZAROAREN 17an



foro de competitividad
euskadi2015
lehiakortasun foroa



Berrikuntzak duen garrantzia gizartearen onurarako

Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluak interes handiarekin aztertu zuen Europako Batzordearen 2003ko ekaineko komunikazioa. Komunikazio horretan, ikerketako inbertsioei dagokionez, Europaren eta haren merkataritza kideen arteko aldea gero eta handiagoa zela ohartarazten zen, eta horrek arriskuan jar zezakeela, epe luzera, Europaren ahalmena, berrikuntzaren, hazkunderaren eta enpleguaren arloetan.

Ikerketako atzerapen hori gainditzearen, Batzordeak plan bat abiarazi zuen, Bartzelonako Europar Kontseiluak (2002ko martxoa) ezarri zuen helburua betetzeko asmoz. Helburu hori ikerketan batez besteko inbertsioa gehitzea da, BPGaren % 1,9tik BPGaren % 3ra, hain zuten, 2010. urtea arteko epean. Sektore pribatuak finantzatzeko lituzke zifra horren bi herenak.

Ekintzarako dei horri kasu eginez, Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluak, SPRI eta Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak jardunaldia antolatu dute azaroaren 17rako, Euskadin ekonomia modernoa eta lehiakorra bultzatze aldera. Ekonomia horrek epe luzera bere hazkunde ahalmena -eta, ondorioz, gizartearen onura- sustatuko duen ezagutzan oinarritu behar du.

Desazelerazioa, deslokalizazioak eta ziurgabetasuna nagusi diren ingurune ekonomiko honetan, ikerketa, garapena eta teknologiaren berrikuntza bultzatzea funtsezkoa da Euskadi % 3ko helburu horretara inguratzeko. Horri esker areagotu ahal izango dira hazkunde ekonomikoa, enpresen lehiakortasuna, kalitateko enplegua, osasunaren hobekuntza eta, horrenbestez, gizartearen onura eta kohesioa. Gainera, ingurumenaren eta garapen iraungarriaren alde ere jardun ahal izango dugu horrela.

Jardunaldi honetan, orobat, nabarmendu egingo dugu Ikerkuntza eta Berrikuntzarako Europako Eremua bultzatu beharra. Izan ere, hartara, Europako lankidetzaren bidez, ekonomia nazioartekotzek dakartzan erronkak gainditu ahal izango ditugu.

Jardunaldia bukatutakoan, Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluak, SPRI eta Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak lanean jarraituko dute eskualdeek indar handiagoz parte har dezaten Lisboako Estrategiako helburuetan adierazitako Europar Batasun hori eratzin: «ezagupenean oinarritutako munduko ekonomiarik lehiakorrena eta dinamikoarenekin, hazkunde ekonomikorako ahalmenarekin, enplegu gehiago eta hobeeekin, eta gizartearen kohesio handiagoarekin». Baina, era berean, elkartasun handiagoa izan behar duen Europar Batasun bat, planetako biztanle guztien guztien politika, gizarte, ekonomia, hezkuntza, zientzia eta teknologia aurrerapenez areago arduratuko dena.

IZEN-EMATEA

Jardunaldira joaten direnei agiria eta UPV/EHuko kreditu erdia emango zaizkie.
Parte hartzea dohainik.

Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua: eurobask@eurobask.org • Tel.: 945 12 35 38
SPRI: slopez@spri.es • Tel.: 94 403 70 02

EGITARAUA

- 09:00 **DOKUMENTAZIOA BANATZEA**
- 09:30 **Aurkezpena:** JOSÉ M^o GONZÁLEZ ZORRILLA. Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluko burua.
Hasierako agurra: JUAN IGNACIO PÉREZ. EHUko errektorea.
- 09:45 **JARDUNALDIA IREKITZEA:** ANA AGIRRE. Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua.
- 10:00 **JARDUNALDI HASIERAKO HITZALDIA**
PEDRO MIGUEL ETXENIKE. Donostia International Physics Center zentroko burua, eta EHUko Materia Kondentsatuaren Fisikako katedraduna.
Zientzia, Teknologia, Ekonomia.
Moderatzailea: JUAN JOSÉ ÁLVAREZ. Nazioarteko Zuzenbideko katedraduna. EHU.
EMEK/CVMEko idazkari nagusia.
- 10:30 **IKERKETA, GARAPEN ETA BERRIKUNTZAKO POLITIKAREN AURKEZPENEA, ETA 2010ERA KO ETORKIZUNEN IKUSPEGIA**
DAN ANDREE. A Zuzendaritza: Europar Erkidegoko Jardueren Koordinazioa. A. 1 Unitatea: VII. Esparru Egitaraua, Nazioarteko Harremanak. Europako Batzordea.
Moderatzailea: MIKEL ANTÓN ZARRAGOITIA. Europako Gaietarako zuzendaria. Eusko Jaurlaritza.
- 11:00 **ATSEDENALDIA**
- 11:30 **EUROPAR BATASUNEN ESPERIENTZIA ARRAKASTATSUAK, ETA EUSKADIRAKO IKUSPEGIAK**
Moderatzailea: MÓNICA MOSO. Ezagutzaren Clusterreko zuzendaria.
Finlandiako esperientzia: HARRI AIRAKSINEN. Enpresa Garapeneko zuzendaria. Tampere-ko eskualdea.
Esloveniako esperientzia: MARKO HREN. Informazio Gizarterako ministroaren aholkularia.
Euskadira ko ikuspegiak: JOSEBA JAUREGIZAR. Teknologiaren eta Informazio Gizartearen zuzendaria. Eusko Jaurlaritza.
- 13:00 **EZTABAIDA**
- 15:30 **IKERKETA, GARAPEN ETA BERRIKUNTZAREN ERRONKA, EUSKADIN**
Moderatzailea: AITOR COBANERA. SPRIko zuzendaria nagusia
JAVIER RETEGUI. Eusko Ikaskuntzako burua.
JON BARRUTIA. Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea. Eusko Jaurlaritza.
MAURI LAZKANO. Euskadiko Parke Teknologikoen Sarearen burua. Teknologia Parkeen Nazioarteko Elkartearen Europako Dibisioko burua.
- ATSEDENALDIA**
- JAVIER MADARIAGA.** TECNALIako burua.
TXOMIN GARCÍA. IKERLANeko burua eta Ulma-ko zuzendaria nagusia.
RAMON ECENARRO. Euskal Herriko Itsas Foroko burua.
JOSÉ LUIS JIMÉNEZ BREA. Artecheko zuzendaria nagusia eta Ezagutzaren Clusterreko burua.
- 17:30 **EZTABAIDA**
- 18:00 **ONDORIOAK:** MIKEL NAVARRO. Este-ko Ekonomiaren Katedraduna. Deustuko Unibertsitatea.